

ALKATETZAREN²⁰¹⁶... ZK.KO EBAZPENA
RESOLUCION DE LA ALCALDIA N°²⁰¹⁶...
(Testua / Texto:2016PORD0003)

Gaia: 2016PORD0003 espedientea,
Irungo ZARATA MAPARI buruzkoa.

En relación con el expediente
2016PORD0003 relativo al MAPA DEL
RUIDO de Irun.

Egitateak:

Resultando los siguientes hechos:

-2016ko urriaren 5eko Alkatetzaren 1615 zenbakiko Ebazpenaren bidez, ondokoa erabaki zen:

-Mediante Resolución de la Alcaldia nº 1615 de fecha 5 de octubre de 2016, se acordó:

1.- Jendaurrean jartzea Irungo Zarataren Mapa, eta tramitea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea azken argitarapenetik kontatzen hasi eta hilabete batez, edozein pertsona fisiko edo juridikok dagoen dokumentazioa eta jarraitu den prozedura aztertzei aukera izan dezan, eta epe horretan bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan.

1º.-Someter a información pública el Mapa de Ruido de Irun, anunciándose el trámite en el Boletín Oficial del País Vasco y Boletín Oficial de Gipuzkoa, por plazo de un mes, a contar desde la última publicación, a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar la documentación existente y el procedimiento seguido, pudiendo formular en ese plazo las alegaciones que tenga por conveniente.

-Zegozkion iragarkiak 2016ko urriaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (194 zenbakian) eta 2016ko urriaren 19ko EHAAn (198 zenbakian) argitaratu ziren, eta udal web orrian. Alegazioak egin dira, eta espediente honetan erabaki dira Zarata Mapari buruzkoak, erantsita doan Eranskinean jasotzen diren terminoetan.

-Publicados los correspondientes anuncios en el B. O de Gipuzkoa nº 194 de 13 de octubre de 2016 y en el B. O. P. V nº 198 de 19 de octubre de 2016, y pág web municipal, se han formulado alegaciones, resolviéndose en el presente expediente las referidas al Mapa de Ruido en los términos que se recogen en Anexo Adjunto.

Horretaz, txosten teknikoa egin du proiektua idatzi duen taldeak (AAC, Acústica+Lumínica), eta berretsi egin du udal-teknikariak.

Al respecto se ha emitido informe por el equipo redactor del Proyecto, AAC Acústica+Lumínica que es refrendado por el Técnico Municipal.

AAC Centro de Acústica Aplicada enpresak **Irungo Zarata Mapa** egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan xedatutakoa betez.

-Por la empresa AAC Centro de Acústica Aplicada, se elaboró el **Mapa de Ruido de Irun**, en cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV.

Argudioak

Considerando los siguientes argumentos:

Honako hau xedatzen du Dekretuak:

El citado Decreto 213 determina:

(10. art.)

"1.- 10.000 biztanletik gorako udal guztiek egin beharko dituzte zarata-mapak. Zarata-mapa horri esker gauzatu ahalko da, ondoren, udal-lurrei eragiten dieten eta tokiko administrazioak garrantzizkotzat jotako fokuek dekretu honen aplikazio-eremuan sortzen duten zarata-mailaren ebaluazio orokorra. Beste alderdi batzuen artean, dauden eta etorkizunean eraikiko diren hiriguneen gaineko inpaktua aztertu beharko dute zarata-mapek".

(Art. 10)

1.- Todos los Ayuntamientos de más de 10.000 habitantes deberán efectuar un mapa de ruido que permita la evaluación general de los niveles sonoros que afecten a su territorio por parte de todos los focos emisores acústicos, en el ámbito de aplicación del presente Decreto, que se consideren relevantes a juicio de la Administración Local y, entre otros aspectos, que contemple la evaluación del impacto sobre las áreas urbanizadas existentes y de futuro desarrollo.

Era berean, aipatutako arau horretako 3. puntuak hau xedatzen du: *"beren eskumenpeko lurralde-esparruaren barruko trantsizio akustikoko eremuetako zarata-mapak egin beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek".*

Asimismo determina el citado precepto en el punto 3 que *todos los Ayuntamientos de la CAPV deberá realizar mapas de ruido de, al menos, las zonas de transición acústica que existan dentro del ámbito territorial de su competencia.*

- **Dekretu bereko 3, h) artikulua**ren arabera, honela definitzen da zarata-mapa: *"aldez aurretik existitzen den edota zarata-indize bat oinarri harturik iragarritako zarata-egoera bati buruzko datuen aurkezpena da zarata-mapa. Bertan, besteak beste, honako hauek zehaztuko dira: indarreko mugarik gainditu den; eremu zehatz batean zarata jasaten duten pertsonen kopurua; edota eremu jakin batean zarata-adierazle baten maila jakin batzuk jasan ditzaketen*

-**En el artículo 3, h) del mismo Decreto**, se define el mapa de ruido como *"la presentación de datos sobre una situación acústica existente o pronosticada en función de un índice de ruido, en el que se indicará la superación de cualquier valor límite pertinente vigente, el número de personas afectadas en una zona específica o el número de viviendas expuestas a determinados valores de un índice de ruido en una zona específica."*

etxebizitzaren kopurua”.

Honako hau dio Bigarren Xedapen Gehigarriak:

“Dekretu hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, 10.000 biztanle baino gehiagoko udal guztiek 4 urteko epea izango dute 10. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako zarata-mapa egiteko (...).

Horrela, dekretu hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek 4 urteko epea izango dute 10. artikuluko 3. puntuan xedatutakoa betetzeko”.

Azken Xedapenetatik Bigarrenak hau xedatzen du: *“Dekretu hau 2013ko urtarrilaren leian jarriko da indarrean”.*

-Espedientean jasota dago ZARATA MAPARI buruzko txosten teknikoa, eta txosten horrek mapa osotzat eta zuzentzat jotzen du, eta haren edukia osatzen duten atalak eta gerora, onetsi ondoren, egin beharreko ekintzak eta jarduketak zehazten ditu.

-Dekretu bereko 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:

2.- Administrazio eskudunak zarataren mapa onetsiko du alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik hasi eta gehienez bi hilabeteko epean, egin diren alegazioak kontuan hartuta.

3.- Zarataren Maparen onespren erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagozkion Lurralde Historikoetakoan/etan argitaratuko da.

4.- Nolanahi ere, 10. artikuluko 1, 2 eta 3

La Disposición Adicional Segunda, señala que:

Todos los Ayuntamientos de mas de 10.000 habitantes deberán efectuar el mapa de ruido a que se refiere el número 1 del artículo 10 en el plazo de 4 años desde la entrada en vigor del presente Decreto.

Todos los Ayuntamientos de la CAPV darán cumplimiento a lo dispuesto en el punto 3 del artículo 10 en el plazo de 4 años desde la entrada en vigor del presente Decreto.

La Disposición Final.Segunda: determina que el presente Decreto entrará en vigor el 1 de enero de 2013.

-Consta en el expediente informe técnico sobre el MAPA DE RUIDO que lo considera completo y correcto, definiendo las partes que determinan su contenido así como las posteriores acciones y actuaciones a realizar, tras su aprobación.

- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 del mismo Decreto:

2.-La Administración competente procederá a la aprobación del mapa de ruido, teniendo en cuenta las alegaciones formuladas, en un plazo máximo de dos meses desde el fin del plazo de presentación de alegaciones.

3.- El acuerdo de aprobación del mapa de ruido se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del, o de los, Territorios Históricos correspondientes.

4.- En todo caso, los mapas de ruido a los

paragrafoetan aipatzen diren zarata-mapak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara eta Lurralde Historiko(eta)ko Foru Aldundi(eta)ra helaraziko dira, formatu digitalean, analisi-dokumentuak eta horrekin loturiko dokumentazio grafikoa atxikiz.

que se refieren los párrafos 1, 2 y 3 del artículo 10 se remitirán a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y a la o las Diputaciones Forales del o de los Territorios Históricos correspondientes, en formato digital, incluyendo los documentos de análisis y la documentación gráfica asociada.

Espedientean jasota dagoen dokumentazioa ikusita,

A la vista de la documentación obrante en el expediente

EBATZI DUT:

HE RESUELTO

1.- Zarata Maparen jendaurreko informazioaldiaren izapidetzan egindako alegazioak erabakitzea, erantsita doan eranskinean jasotzen diren terminoetan.

1º.- Resolver las alegaciones formuladas durante el trámite de información pública del Mapa de Ruido en los términos que se recogen en anexo adjunto.

2.- Irungo Zarata Mapa onestea.

2º.- Aprobar el Mapa de Ruido de Irun.

3.- Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3º.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4.- Zarata Mapa helaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara eta Foru Aldundira.

4º.- Remitir a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y a la Diputación Foral, el Mapa de Ruido.

5.- Erabaki honek administrazio-bideari amaiera ematea. Aukeran, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabetean erabakia jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da erabakia, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean erabakia jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egoki jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu


5º.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse, potestativamente, ante el Alcalde, recurso de reposición previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con

ahal izango da.

independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irunen, 2016ko *Abendu*aren *5*(e)an / Irun, *5* de *Diciembre* de 2016

ALKATEA / EL ALCALDE



IDAZKARI NAGUSIA
LA SECRETARIA GENERAL

